Oñatiko udal komunikabideen boletina 2018-6-15

## deia egin dute.



Altsasuko auzia dela eta zalantzak izan badituzte ere, urteroko hitzorduari eustea erabaki dute eta, hala, ekainaren 30ean ospatuko da VIII. Fan Hemendik eguna, Goardia Zibila Euskal Herritik joan dadin eskatzeko, modu baketsuan eta jai giroan. Kultur etxeko zine aretoa lepo beteta egin zuten aldarrikapen jaiaren aurkezpena eta, bidez batez, Altsasuko auziaren epaiaren kontra bihar Iruñean egingo den manifestaziora joateko deia egin zuen Fan Hemendik ekimenak. Arranon daude salgai autobuserako txartelak. Jarraitu.

## Araotz eta Urrexola arteko ibilaldia egingo da domekan, Jerardo Elortzaren omenaldia borobiltzeko



Pasa den larunbatean egin zen Santa Ana aretoan, Jerardo Elortza omentzeko ekitaldi nagusia, baina igande honetan emango zaio amaiera

**KONTZERTUA GAZTELEKUAN**




'Oxigenoa euskarari 6.000 metrotan' ekimenaren aldeko kontzertua Gaztelekuan, 19:00etan: Kepa Zelaia eta Iñigo Ugarte, Arrazola eta Valls, eta GUSB taldeak joko dute.

EKAINAK 17, igandea

**IBILALDIA, ARAOTZ ETA URREXOLA ARTEAN**




Jerardo Elortzaren omenaldia borobiltzeko ibilaldia, Jerardok berak

omenaldiari, Araotz eta Urrexola artean egingo den ibilaldiarekin. Araotzeko auzuneak, antxiñako bideak, lanbideak, Agirreko Lope, haitzuloetako aztarnategiak, Sandaili, makinetxea... eta beste hainbat gairi buruzko argibideak emango dituzte Jerardok berak eta Natur Eskolako Imanol Biainek. Goizeko 8etan da hitzordua, postetxe aurrean. Ordu biak aldera amaituko da ibilaldia.

## 2018/2019 ikasturteko Eskola Kirola programan parte hartzeko izen-ematea ekainaren 20an itxiko da




Irailean, ikasturte berriarekin batera, Eskola Kiroleko eredu berria jarriko dute abian udalak eta herriko ikastetxeek, kalitatearen aldeko apustua eginez. Kirol programari dagokinoez, 3. eta 4. mailetako ikasleek nabarituko dute aldaketa nagusia, asteburuetako saioaz gain, astean zehar ere Eskola Kiroleko saio bat egin behar baitute. Aste barruko saioa egiteko egun eta ordutegi aukera ezberdinak daude (ikusi hemen). Gogoratu izena emateko epea ekainaren 20an amaituko dela. Ikastetxe bakoitzeko Eskola Kiroleko koordinatzaileari eman behar zaio izen-emate orria, bankuko ordainagiriarekin batera.

eta Imanol Biainek gidatuta. Irteera, 8:30etan Araotzeko saloian.

**MENDI IBILALDIA 'AITZULO'**

'Puntaik Punta' jaialdiaren baitan 'Aitzulo, Debagoieneko leihoa' ibilaldia. Irteera, 9:30etan Arrikrutzeko koban. Izena emateko: 943082000.

**JUBILATUEN EGUNA**

12:00 Meza, parrokian. Jarraian, bi nagusiri omenaldia (musika banda eta dantzariak) eta bazkaria kiroldegian. Bazkalostean, opari zozketa eta dantzaldia.

**EKAINAK 18, astelehena**

**PENTSIO DUINEN ALDEKO ELKARRETARATZEA**

Herriko pentsionistek deituta, Foruen enparantzan, 12:00.

**MUSIKA ENTZUNALDIAK**

